



Laixan

# Antxiñako fotografia



## Akelenetik eta Txapelenetik behera

**E**rrekalde auzuan bizi diranak gogoratuko ete dira nun eguen **Aklena** kale-baserrixa? Baten batzuk bai, seguruenik, baiña beste askorentzat aspalditxoko izen lausotua edota zihero ezezaguna izango da akaso. Gaurko argazki honetan Errekaldeko etxe-poligona jaso aurretik paraje horrek eukan itxuria zelakua zan ikusi geinke. Moia kaleko eta Mendiko kaleko etxiak, edo etxe horrein teillatuak behintzat, erakusten doskun fotografia interesgarri honek hiruroigeren bat urte eukiko dittuela uste dogu. Ezkerraldetik hasiko gara, Larrañatik gatzozela **Moia kale** edo, sasue batian esaten xakon moduan, **Artzain kaleko** eskumaldeko etxe-illaratik:

Lehenengo agerketan xakuna **Akeleneko** etxeostia da. Eztago oraindiok 1950ko hamarkadan inguru horretan jaso euen zerriaren aztarranik. Gero datozen etxien teillatuak honeitxek dira bata bestiarene ondoren: **Eperretxe** izenekua; **Ontzigiñena**, garai batian Enparantzatarrek lurrezko ontzixak egitten zittuailako; **Maletarena**, Urtatzatarren etxia; **Arrolarena**, Arregitarrena; ortu-zati baten tartiarekin **Teresatxuena**, beste Arregitarrek batzuen; **Errekalderena**, Martzeliño Agirrena; eta orain kultura-etxia dagueen tokixan **Juanito Garai** enpresariaren bizilekua, lehenago **Lola Moia**, Ortiz de Zarateren alargunarena izandakoa.

Akelenetik eskumarantz, Mendiko kale aldera ziran **banastagiñen eskarpa-potzuak** somau bakarrik egitten dira. Beste kalia letxe hemen be kale-baserrri batzuk ziran eta banastagiñak ugari. Esate baterako, eskumako lehenengua: **Txapelena**, Biaindarena; hurrengua be bai, **Larrastegirena**, Ugarte familiariarena; ondoren **Plazaolatarren** etxia etorren; gero **Jauregialtzotarrena**, banastagiñak honeik be; **Meltxorarena** eta **Txartesena** hurrengo, Arangurendarrena azkenengo hau; **Roke Unzurrunzaga** eta **Agirretarren** etxiak egozen jarraixan; ondoren **Kortatarrena**, hau da, Aramendi-Ugarte familiariarena; hurrengo etxian bizi ziran **Xilberionak**, Anduagatarrek lehenengo pisuan, igeltseruak, eta **Munazategiko Eulogio Barrena** arotza bigarrenian; eskumaldeko azkenengua, berriz, **Kortabarriko Martzeliñorena** zan; **Torrebidetako kantoia** pasauta, **Kubako** etxia (taberna popularrarekin) eta Bakardade kaleko teillatu batzuk ikusten dira. Etxe-ostietan terrazetan moldautako hainbat ortu be badittugu.

Mendiko kaleko ezkerraldian etxe bat baiño ezta ikusten, eta Bakardade kaleko bidekurtzian **Egañatarrena**, orduan beheko partian janari-denda ezaguna eukana. Parrokixako kanpantorriaz gaiñera, Garagaltza auzoko hainbat baserrri agiri dira atzian. Ezkerretik eskumara: **Altamira**, **Kurpide**, **Okumardin** eta **Gatzelondo**. Mendixak be garbi bereizketan dira: **Urruxolako Haitza** edo **Orkatzategi**, **Kurtze Barri** Leintz aldera, **Gogordoko** tontorra, **Larraziar** eta abar. Lehen aittautako ortuak ez ezik, soruak be ugari dagoz, bai Akeleneko eta Txapeleneko etxeostietan, gerora Errekalde auzoko orubeiak izango ziranak, bai Garagaltza auzuan. Izendatu dittugun kale-etxerik gehixenak ordezkatu edo sakon barriztu dira azkenengo hamarkadetan.

J. E.

Fotografia Gerardo López de Gereñu (1904-1992) Bitorixako argazkilaria famaua zanak ataratakua da. Guk Arantzazuko argazki-fondotik eskuratu dogu eta argibide asko Pilar Barrenari zor xaugu. Milla esker!